



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 5a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00008. Foru-lege proiektua, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikita-ko osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00013. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen estatutuaren Testu Bategina onesten duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (9. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00020. Interpelazioa, garapenerako lankidetzaren alorreko politika orokorrari buruzkoa. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak egin du (12. or.).

—11-24/ITP-00021. Interpelazioa, Nafarroako lehen sektoreko belaunaldi-berritzeari heldu eta hori garatzeko politikei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (13. or.).

—11-24/MOC-00094. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarrai dezan betetzen iaz egin ziren akordioak, bakarrik dauden adingabeen harrerari buruzkoak. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (14. or.).

—11-24/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Kataluniaren finantzaketa bereziko akordioa. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00253. Galdera, Eraberritze Demokratikorako Plana foru-araudiari egokitzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (17. or.).

- 11-24/POR-00254. Galdera, N-121-A errepideko argigailuak kudeatzeko sistemari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00255. Galdera, landa-ingurunekeo belaualdi-berritzerako planari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00256. Galdera, Lorpen Femeninoaren Indizeari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andre-ak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00257. Galdera, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko adierazleen gainekoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00258. Galdera, ustekabeko eta hezkuntza-indargarrirako matrikulen indizeei buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00259. Galdera, Nafarroako autonomoen eta funtzionarioen kopuruei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (20. or.).
- 11-23/POR-00258. Galdera, A-15eko obrei buruzkoa. Galdera erretiratzea (21. or.).
- 11-24/POR-00090. Galdera, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa irekitzearen atzerapenari buruzkoa. Galdera erretiratzea (21. or.).
- 11-24/POR-00209. Galdera, ezgaitasuna baloratzeko ekipoei buruzkoa. Galdera erretiratzea (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatiko ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (22. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (22. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak (23. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (23. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (24. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 11-24/DFL-00002. Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko uztailaren 24koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen (25. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00008. Foru-lege proiektua, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko uztailaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, foru-lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Horren bidez, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen da, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Aipatu foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarreko izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena

ZIOEN AZALPENA

2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legeak bere hogeita laugarren xedapen gehigarrian ezartzen du osasun arloko langile guztien lanbide karrera arautzeko arau-esparru baten proposamena. Hala, konpromiso bat jasotzen du arau-esparru baten proposamena lantzeko, 2023ko lehen lauhilekoan, eta langileen legezko ordezkari-tzarekin batera, egun lanbide karrera aitortuta ez duten osasun arloko langileen karrera arautzeko, eta pixkanaka ezartzeko, behar besteko aurrekontu zuzkidura dagoen heinean.

Langileen arloko araudiari dagokionez, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, zeinak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen baitu, 34. artikuluan ezartzen du zein diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erabiliko dituen formulak bere langileen barne-igoerarako, eta d) letran aipatzen du Nafarroako Gobernuak foru lege-proiektu bat igorriko duela Parlamentura lanbide karreraren edo beste elementu batzuetan oinarritutako lansari-pizgarriak sortzeko.

Bestalde, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen du– eta azaroaren 19ko 31/2002 Foru Legeak –lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako atxiki gabeko osasun arloko beste langile batzuetara zabaltzen du– Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko fakultatiboentzako lanbide karreraren sistema ezarri zuten Nafarroako Foru Komunitatean.

Era berean, maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legeak –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten du– lanbide karreraren sistema ezarri zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako osasun arloko diplomadunentzat, eta Osasun Departamentuko osasun arloko diplomadunei eta hari atxikitako erakunde autonomoei ere aplikatzen zaie.

Zalantzarik gabe, profesional horien lanbide karrera ezartzeak osasun-laguntzaren hobekuntza kuantitatibo eta kualitatiboa ekarri du. Horretarako, funtsezko alderdiak garatu dira, hala nola etengabeko prestakuntza hartzea kalitate tekniko-asistentziala hobetzeko banakako ahaleginaren adierazletzat, bideak irekitzea osasun zerbitzuen zuzendaritzan eta kudeaketan profesionalek parte-hartze handiagoa eta eraginkorragoa izateko, eta motibazio eta pizgarri mekanismoak sartzea, ahaleginak egokitasunez bideratzeko eta lortutako emaitza asistentzialak aitortzeko.

Langile horiekin lortutako esperientzia ikusita, eta osasun-laguntza hobetzeko asmoz, lehentasunezko zatitza jotzen da Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako gainerako osasun arloko langileen inplikazioa eta garapen profesionala.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da herritarrek osasun arloko eskaria handitzen ari direla, eta inplikaturako langileek osasun arloko jarduera eraginkortasunez kudeatu behar dutela. Era berean, osasun arloan etengabeko aurrerapen zientifiko eta teknologikoek gertatzen ari dira, eta horren ondorioz eremu horretan lan egiten duten langileek etengabe eguneratu eta prestatu behar dute. Horregatik, gaur egun herritarrek eskatzen dutenarekin bat datorren osasun-prestazioa lortzeko, beharrezkoa da prestazio hori ematen duten langileen parte-hartze aktiboa.

Foru lege honen bidez, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langile guztien lanbide karrerako sistemaren aplikazioa osatzen da; eta horren asmoa da tresna eraginkorra izatea pertsona horiek osasun zerbitzuen hobekuntzan motibatze eta inplikatze.

Foru legearen aurreproiektuaren testua negoziazio kolektiboan aztertu zen Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako Mahai Sektorialean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahaian.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da lanbide karrera sistema bat ezartzea, Osasun Departamentuko osasun arloko langileei eta haren aplikazio-eremuko erakunde autonomoetako aplikatzeakoa.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema aplikatuko zaie Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako langileei, baldin eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskineko A apartatuan jasotako osasun estamentuetako batean badaude (edo etorkizunean sartuko den batean), “Fakultatibo espezialistak”, “Beste fakultatibo batzuk” eta “Osasun arloko diplomadunak” estamentuetako langileak izan ezik.

3. artikulua. Definizioa.

Lanbide karrera langileen motibaziorako eta osasun zerbitzuen hobekuntzarako lanabes bat da, eta profesionalek banaka aurrera egiteko duten eskubidearen adierazgarri, lanbidean izandako garapena aitortzen dielako ezagupenei (horren barnean sartzen da 8.2.c artikuluan aipatzen diren titulazioak eskuratzea), esperientziari, eta zerbitzu egiten dituzten erakundearen helburuak betetzeari dagokienez.

4. artikulua. Lanbide karrerako mailak.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuko estamenturen batekoak diren langileen lanbide karreraren sistemak lau maila ditu.

2. Estamentu bakoitzaren barruan lanbide karrerako maila batetik bestera igotzeko, estamentu horretan emandako urteei eta garapen eta

hobekuntza profesionalari dagozkien merezimen-
duak egiaztatu beharko dira.

5. artikulua. Lanbide karrerako ordainsaria.

1. Foru lege honetan arautzen den lanbide karrera berariazko osagarri baten bidez ordainduko da. Osagarri hori ordainsari osagarritzat joko da, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6. artikulua ondoietarako. Foru lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen du.

2. Foru lege honen aplikazio-eremuko langileek lanbide karrerako ordainsaria jasoko dute, titulazioaren arabera eta zer estamentutan aritzen diren kontuan izanda, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte.

3. Lanbide karrerako osagarria hamalau hilekotan ordainduko da; horietako hamabi arruntak izanen dira, eta bi, apartekoak.

6. artikulua. Mailaz igotzeko baldintzak.

1. Lanbide karreran mailaz igotzeko, eskaeraren egunean foru lege honen 7.1 artikuluan xeda-

tutako puntuazioa lortu beharko da, eta aldi berean hartu beharko dira kontuan jarduera profesionalen emandako urteak eta garapen eta hobekuntza profesionala, honako baldintza hauetan:

a) Eskatutako guztizko puntuazioaren ehuneko 50: dagokion estamentuan zenbat urte aritu diren kontuan izanda (puntu bat, horretan aritutako urte oso bakoitzeko), foru lege honen 7.1 artikuluan adierazitako gehieneko puntuaziora arte.

b) Eskatutako guztizko puntuazioaren ehuneko 50: jarduera profesionalaren eta garapen eta hobekuntza profesionalaren baldintzak gainditzeagatik, foru lege honen 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Maila igoerak artikulua honetan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta hurrengo urtarrilaren 1ean izanen du eragina.

7. artikulua. Mailaz igotzeko behar diren iraupen-aldia estamentu bakoitzean eta puntuazioa.

1. Lanbide karreran mailaz igotzeko, puntuazio hau lortu beharko da, eta iraupen-aldi hauek egiaztatu:

| | Iraupen-aldiaren arabera behar den puntuazioa | Baremoaren arabera (garapen eta hobekuntza profesionala) behar den puntuazioa | Eskatutako puntuazioa, guztira |
|------------|---|---|--------------------------------|
| I. maila | 5 | 5 | 10 |
| II. maila | 7 | 7 | 14 |
| III. maila | 8 | 8 | 16 |
| IV. maila | 5 | 5 | 10 |

2. Iraupen-aldia betetzeko, kontuan hartuko da zenbat urte egin diren dagokion estamentuan Europar Batasuneko estatu kideetako osasun-sistema publikoetan. Estamentu horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinarekin A apartatuan jasotako estamentuetako bat izan behar du.

Orobat, ondorio guztietarako kontatuko da edozein administrazio publikotan izendapen libreko postuetan zerbitzu bereziak egiten emandako denbora, bai eta prestakuntza, trebakuntza eta ikerkuntza egoeraren ondoriozkoa ere.

8. artikulua. Garapen eta hobekuntza profesionala baloratzeko baremoa.

1. Ebaluazioaren xede den aldiaren egindako garapen eta hobekuntza profesionala erregelamendu bidez onesten den baremoaren arabera zenbatuko da.

2. Baremoak bereiz baloratuko ditu jarduera eta jardun profesionala; garapen tekniko eta antolamenduzkoa; eta prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza.

Ebaluazioa gainditu eta, estamentu bakoitzaren barruan, lanbide karrerako maila jakin batera igotzeko, erregelamendu bidez ezarriko da lortu beharreko gutxieneko puntuazioa. Puntuazio hori honako multzo hauetan guztietan edo ba-

tzuetan lortu beharko da, baloratu beharreko estamentuaren eta espezialitatearen arabera:

a) Jarduera eta jardun profesionala: atal honetan baloratuko dira profesionalaren jarduna, haren inplikazioa, unitatearen helburuei eta egindako lanaren kalitateari egindako ekarpena eta izandako konpromisoa, pazienteen gogobetetasun maila, eta esperientzia, ezagutza, trebetasunak, jarrera zein ahalegin pertsonala, esperientzia profesionala osatzen dutenak eta lan profesionala egiteko modua zehazten dutenak.

Ondorio horietarako, langileek eskubidea dute erakundearen eta unitatearen helburuak ezagutzeko eta horiek ezartzen parte hartzeko.

b) Garapen teknikoko eta antolamenduzko jarduerak: baloratuko da profesionalak parte hartzea jardueretan, proiektuetan, lantaldeetan, kalitate-taldeetan, buruzetan edo koordinazioetan, bai eta osasun-laguntza hobetzen eta Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen helburuak betetzen modu eraginkorrean laguntzen duen beste edozein jardueratan ere.

c) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza: apartatu honetan baloratuko dira etengabeko prestakuntzako jarduera borondatezkoak, irakasle eta ikasle gisa; Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan langileen sustapena ahalbidetzen duten osasun arloko titulazio ofizialak eta lanpostuarekin zerikusia duten beste titulazio batzuk, bai eta euskara eta Europar Batasuneko hizkuntzak ezagutzen dituztela egiaztatzen dutenak ere (lanpostu bakoitzak herritarrekiko duen arreta-mailaren edo tratuaeren arabera); eta foru lege honen aplikazio-eremuko langileen hobekuntzan eta eguneratze profesionalan laguntzen duten ikerketa jarduerak.

9. artikulua. Ebaluazio batzordeak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko d(ir)a beharrezkoa(k) d(ir)en ebaluazio batzordea(k). Aldi berean estamentu desberdinak baloratuko dituzten ebaluazio batzordeak ezartzen ahal dira, estamentu horien ezaugarrien arabera.

2. Ebaluazio batzordeek osaera paritarioa izanen dute, erregelamenduz ezarritako arauen arabera.

10. artikulua. Egiaztapena.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, dagokion ebaluazio batzordeak eskatuta, lortutako lanbide karreraren maila esleituko dio profesional

bakoitzari, organo eskudunaren ebazpen baten bidez.

Lehen xedapen gehigarria. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Lanbide karrerako osagarriaren urteko zenbatekoa titulazioaren eta atxikipen-estamentuaren arabera ezartzen da, eta honela zehazten da:

– C mailako estamentuak:

I. maila: 1.652,98 euro.

II. maila: 3.305,96 euro.

III. maila: 4.958,94 euro.

IV. maila: 6.611,92 euro.

– D mailako estamentuak, titulazioa dutenak:

I. maila: 1.414,84 euro.

II. maila: 2.829,68 euro.

III. maila: 4.244,52 euro.

IV. maila: 5.659,36 euro.

– D mailako estamentuak, titulaziorik gabeak:

I. maila: 1.223,32 euro.

II. maila: 2.446,64 euro.

III. maila: 3.669,96 euro.

IV. maila: 4.893,28 euro.

2. Aurreko apartatuan aipatutako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsarietarako ezartzen diren igoera portzentajearen oinarrituta.

Bigarren xedapen gehigarria. Egoera bereziak.

1. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuko langileei aplikatuko zaie Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan zuzendaritza, zuzendariordetza, burutza postuetan edo zuzendaritza arloko beste edozein ardura kargutan ari diren bitartean.

2. Foru lege honetan araututako lanbide karreraren sistema bere aplikazio-eremuko langileei aplikatuko zaie langileen ordezkari organoetako kide diren bitartean, legez ezarritako ordu-kredituaz lanaldi osoan baliatzen direnean. Kasu horretan, mailaz igotzeko, iraupen-aldia betetzeaz

gain, prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntzari buruzko baremoko atala betetzea baino ez da eskatuko eta ebaluatuko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Prestakuntzako puntuazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baliabide propio eta publikoekin bermatu beharko du langile guztientzat aurreikusitako gutxieneko prestakuntza orduak eskaini, eman eta egiaztatzen direla, eta eskaintza publikorik ez bada horrek ez diela kalterik eginen foru lege honen aplikazio-eremuko langileei, lanbide karreran igotzeko baldintzak betetzeari dagokionez. Eskaintza publiko hori bermatzen ez bada, gutxieneko prestakuntza orduak baremoko gainerako atalekin osatuko dira.

Berre hori osasun arloko gainerako langileen lanbide karrerari aplikatuko zaie.

Laugarren xedapen gehigarria. Hizkuntzak baloratzea osasun arloko gainerako langileen lanbide karreretan.

Foru lege honetan xedatutako hizkuntzen balorazioa aplikatuko zaie osasun arloko gainerako langileen lanbide karrerari.

Bosgarren xedapen gehigarria. Foru Komunitateko Administrazioan (Osasun Departamentuan izan ezik) lan egindako denbora aitortzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko langile guztientzako lanbide karrera arautzen denean, foru lege honen aplikazio-eremutik kanpo dauden osasun arloko langileek kasuan kasuko estamentuan egindako zerbitzuak aitortuko dira.

Lehen xedapen iragankorra. C eta D mailetako osasun arloko langileen hasierako kokapena lanbide karrerari dagokion mailan.

1. Foru lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileen hasierako kokapena honela eginen da: langileari esleituko zaio dagokion lanbide karreraren maila kontuan izanda zenbat urte egin dituen kasuan kasuko estamentuan Europar Batasuneko estatu kideetako osasun sistema publikoetan, honako eskala honen arabera:

a) I. maila emanen zaie 5 urte lanean egin badituzte.

b) II. maila emanen zaie lanean 14 urte egin badituzte.

c) III. maila emanen zaie lanean 22 urte egin badute.

d) IV. maila emanen zaie lanean 29 urte egin badute.

2. Zerbitzuan egindako urteen soberakina kontuan hartuko da etorkizunean lanbide karreraren mailaz igotzeko. Igoera hori foru lege honetan ezarritako prozeduraren arabera eginen da.

3. Xedapen iragankor honetan aurreikusitako hasierako kokapenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorio ekonomikoak.

Bigarren xedapen iragankorra. Foru lege honetan araututako lanbide karrerako sistema gradualki ezartzea C eta D mailetako osasun arloko langileei.

Foru lege honetan xedatutako lanbide karrera-ko zenbatekoak modu progresiboan ordainduko dira, gehienez ere 4 urtean, aurrekontuko baliabideen arabera, gutxieneko hauen arabera:

– Hasierako kopuruaren % 50 2024an.

– Hasierako kopuru horren % 70 arte 2025ean.

– Hasierako kopuru horren % 90 arte 2026an.

– Gainerakoa 2027an.

Hirugarren xedapen iragankorra. Foru legea garatzeko arauak.

Azken xedapenetako bigarrean xedatutako arau-garapen berariazkoa onesten ez den bitartean, analogiaz aplikatuko da ekainaren 8ko 54/2009 Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko diplomadunen lanbide karrerako sistema arautzen duen maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legea.

Laugarren xedapen iragankorra. Etorkizunean lanbide karrera zabaltzea Foru Komunitateko Administrazioako langile guztiei.

Foru lege honetan C eta D taldeetako osasun arloko langileen lanbide karrerari buruz ezarritakoa langile horiei aplikatuko zaie, ezertan galarazi gabe etorkizunean, zerbitzu publikoak hobetzeari begira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langile guztiak sartzea jarduna ebaluatzeko eredu homogeneo batean, langile publiko guztientzat ezar daitezkeen lanbide karrerako sistemen garapena zehazteko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege hau garatu eta betearazteko gaikuntza.

Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Mailak esleitzeko, 2025ean tramitatuko da foru lege hau garatzeko foru dekretuaren proiektua.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00013. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen estatutuaren Testu Bategina onesten duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 17an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak foru-lege proposamena aurkeztu du, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen estatutuaren Testu Bategina onesten duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen estatutuaren Testu Bategina onesten duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina amaituko baita eztabaida egin behar den Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen estatutuaren Testu Bategina onesten duena abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua

Minbizia eta gaixotasun larri jakin batzuk dituzten seme-alaben zaintza errazte aldera, langile guztiek, bai sektore publikoek bai pribatukoek, zirkunstantzia jakin batzuetan aitortuta daukate ordainsari-murrizketarik ez dakarren lanaldi-murrizketarako eskubidea. Sektore publikoaren kasuan, zuzenean; eta sektore pribatuarenean, Gizarte Segurantzaren prestazio baten bidez.

Sektore pribatuarentzat, eskubide hori jasota dago 677/2023 Errege Dekretuan, uztailaren 18koan, zeinak aldatu egiten baitu 1148/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Gizarte Segurantzaren sistemari aplikatu eta garatzekoa minbiziak edo beste gaixotasun larri batek jotako adingabeen zaintzarako diru-prestazioa. Sektore publikoarentzat, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean jasotzen da, eta zenbait aldaketa egin zaizkio.

Nafarroan, eta Nafarroako administrazio publikoetako estatutu-araubidearen arloan dugun eskumen eksklusiboaren ondorioz, urtarrilaren 23ko 5/2013 Foru Dekretuaren bitartez aldatu zen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena, aipatu lizentzia hori gure ordenamenduan txertatu eta, horrela, lanaldi-murrizketa ahalbidetze aldera, minbizia edo zuzeneko eta etengabeko zaintza iraunkorra izatera behartzen duen beste gaixotasun larri bat duten seme-alabak zain-

tzekoa. Aipatu foru dekretua 2021ean izan zen aldatua; eta, gero, martxoaren 29ko 12/2023 Foru Legearen bitartez, xedapen gehigarri bat erantsi zitzaion Administrazioetako Langileen Estatutuaren testu bateginari, eskubide hori arautzeko.

Alabaina, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean estatu-mailan eginiko aldaketek zaharkituta utzi dute Nafarroan Foru Komunitateko Administrazio Publikoen zerbitzura diharduten langileei buruz dagoen araubidea.

Herrialdearen gainerakoan sektore publikoko langileek zilegi dutelarik baimen edo lizentzia horietaz gozatzea semeak edo alabak 23 urte edo, kasu berezietan, 26 urte bete bitartean, Nafarroan ezin dira horiek eskatu seme edo alabak 18 urte betetzen dituenetik aurrera. Horrek herrialdeko gainerako langileena –sektore publikoarena eta are sektore pribatukoena– baino egoera okerragoan uzten ditu gure funtzionarioak.

Foru Komunitateak eskumen eskusiboa izanik Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen estatutu-araubideari dagokionez, beharrezkoa gertatzen da langile horien estatutua aldatzea, erantzun egokia eta berme juridikoduna ematearren minbizia edo beste gaixotasun larri bat pairatzen duen seme edo alaba bat duten familia guztiei, zeinak Espainiaren gainontzeko lurraldeetakoak baino egoera okerragoan baitaude, lizentzia ordaindurako modurik gabe geratzen baitira noiz eta seme edo alaba horiek adin-nagusitasunera heltzen direnean.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren hogeita laugarren xedapen gehigarria.

"Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Minbiziak edo beste gaixotasun larri batek jotako seme edo alaba zaintzeko lizentzia ordaindua.

1. Funtzionarioek eskubidea izanen dute beren lanaldiaren iraupena erdira murrizt dakien, ordainsari-murrizketarik izan gabe, minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba bat zaintzeko, beharrezkoa duena zuzeneko zainketa etengabe eta iraunkorra gaixotasunaren tratamendu jarraituan zehar, aurretiazko ospitaleratzea behar izanda nahiz behar izanik gabe. Salbuespenez, lanaldiaren murrizketa ehuneko 99,99rainokoa izan daiteke, behar bezala frogatzen denean beharrezkoa dela lizentziaren helburua betetzeko.

2. Lizentzia emanen da seme edo alabaren ospitale-aldiak eta haren gaixotasunaren trata-

mendu jarraituak irauten duten bitartean; eta, gehienez ere, seme edo alaba horrek 23 urte bete arte.

Lansari-murrizketarik gabeko lanaldi-murrizketa horri noiz eta semeak edo alabak 26 urte bete arte eutsiko zaio baldin eta, 23 urte bete aurretik, halaber frogatzen bada ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duela.

3. Seme edo alaba adingabeak minbizia edo beste gaixotasun larri bat pairatzen duela, bai eta ospitale-aldian eta gaixotasunaren tratamendu jarraituaren iraupen-aldian zuzeneko eta etengabeko zaintza jarraitua beharrezkoa duela ere, adierazpen baten bidez frogatuko da, minbizia edo gaixotasun larria duen seme edo alaba artatzearen ardura duen osasun-zerbitzu publikoko fakultatiboek eginikoa.

Baldin semea edo alaba mutualismo administrazioaren araubide berezian onuradun bezala sartuta badago, frogatze-zeregina entitate horretako fakultatiboek beteko dute.

4. Artikulu honetan arautzen den lizentzia ordaindua ematearen ondorioetarako, gaixotasun larritzat joko dira jkasuan kasuko diru-prestazioa emateko oinarri gisa hartzen den Gizarte Segurantzaren sistemaren zerrendan asota dau denak.

5. Lizentzia emateko baldintza izanen da bi gurasoek lan egitea. Funtzionarioek ordainsarien osotasuna jasotzeko eskubidea izanen dute, soilik, beste gurasoa ez bada arrazoï honi dagokion prestazioaren onuraduna berari aplikatzekoa zaion aurreikuspen sozialeko araubidean. Bi gurasoak funtzionarioak badira, soilik haietako batek izanen du eskubidea bere ordainsariak ez dakizkion murriztu lizentzia hau edukitzeagatik.

6. Lizentzia hori hartzeko eskubidearen baldintzak betetzen dituen seme edo alaba adingabe bat baino gehiago baldin baditu funtzionarioak, haietako bakoitzari dagokion lizentzia ematen ahal zaio.

7. Arau orokor gisa, lanaldiaren murrizketa egunero baliatu beharrezkoa izanen da, funtzionarioak ezarririk daukan lanaldiaren lehen eta/edo azken orduetan baliatu ere, zerbitzuaren beharren arabera. Zerbitzuaren funtzionamendu egokiarekin bateragarria den aldi orotan, zilegi izanen da lanaldi osotan metatzea murrizketa, hilabete kontaktarekin gehienez ere.

8. Gaixorik dagoena adinduna izan eta ezkondu egiten bada edo izatezko bikotea eratzen bada, prestaziorako eskubidea bere ezkontide edo izatezko bikotekide den pertsonak izanen du, baldin eta frogatu egiten bada onuradun izateko baldin-

tzak betetzen dituela eta 18 urteko adina bete aurretik hasi bada gurasoaren lanaldi-murrizketa.

9. Artikulu honetan arautzen den lizentzia ordaindua orobat aplikatuko da adopzioaren, aldi baterakoa nahiz iraunkorra den harreraren eta adoptatzeko zaintzaren kasuetan.

10. Adingabe batek berak ez du inoiz eskubiderik emanen artikulu honetan arautzen diren lizentzietako bat baino gehiago hartzeko.

11. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, lizentzia hau emanen da Funtzio Publikoko Zuzendaritza

Nagusiak aurretiaz txostena jaulkirik, lizentziarako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2025eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00020. Interpelazioa, garapenerako lankidetzaren alorreko politika orokorrari buruzkoa

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak egindako interpelazioa, garapenerako lankidetzaren alorreko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, kontroleko kasuko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin:

Gaur egun, gure planetako ordena politiko-ekonomiko hegemonikoak egiturazko arrakala handiak sortzen ditu iparralde ekonomikoa eta hegoalde ekonomikoa deitzen direnetako herrialdeen artean. Egiturazko arrakala horiek desberdintasun endemikoak eragiten dizkiete maila guztietan munduko biztanle askori (ekonomikoak, politikoak, sozialak eta abar), eta pobrezia prekario eta arriskutsuan bizitzera kondenatzen dituzte.

Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzako politika publikoak funtsezko tresna dira adierazitako egiturazko arrakalei aurre egiteko, bai eta munduko emakume eta gizon guztien garapen jasangarrirako eta bizi-maila hobetzeko bermea ere.

Horregatik guztiagatik, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak Nafarroako Gobernuaren interpelatzen du Garapenerako Lankidetzaren arloan duen politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/ITP-00021. Interpelazioa, Nafarroako lehen sektoreko belaunaldi-berritzeari heldu eta hori garatzeko politikei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako lehen sektoreko belaunaldi-berritzeari heldu eta hori garatzeko politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Lehen sektorea, funtsezko jarduerak barne hartzen dituena –nekazaritza, abeltzaintza, arran-

tza eta baso-ustiapena esaterako–, gizarte ororen oinarria da. Hala ere, azken hamarkadetan sektoreak krisialdi sakon bati egin behar izan dio aurre, bizitzan zehar horretan aritu direnak zahartu egin direlako, lana prekarizatu egin delako eta gazteak beste sektore batzuetara edo aukera bila hirietara joan direlako.

Nafarroan, nekazari eta abeltzainen batez besteko adina 55 eta 60 urte artekoa da, beste autonomia-erkidego batzuen eta Europa osoaren antzekoa alegia. Horrek esan nahi du sektore horretako lan-indarraren zati handi bat erretiroadinetik hurbil dagoela.

Alderdi Sozialistaren ustez, lehen sektorean belaunaldi-erreleboa beharrezkoa ez ezik, hura eraldatzeko aukera ere izan behar da, funtsezko baliabideen ekoizpena eta banaketa ekitatiboagoa eta jasangarriagoa izan dadin.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako lehen sektorean belaunaldi-erreleboa lantzeko eta garatzeko politikei buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/MOC-00094. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita jarrai dezan betetzen iaz egin ziren akordioak, bakarrik dauden adingabeen harrerari buruzkoak

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarrai dezan betetzen iaz egin ziren akordioak, bakarrik dauden adingabeen harrerari buruzkoak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Komunikabideei esker, ezagun da 6.000 haurrek egoera larria bizi dutela Kanarrietan duela zenbait hilabetetik hona, migrazio-larrialdiaren ondorioz. Azken egunotan, 300 plazatan gainditu da Ceutako Hiri Autonomoaren harrera-baliabideen edukiera. Adingabe horiek zeharkaldi arrisku-tsu bati ekin diote pobreziatik, gerretatik eta klimaldaketaren ondorioetatik ihesi, eta horrek ondorio fisiko eta emozional handiak eragin ditu haietako askorengan. Kanarrietako Gobernuak kudeatzen dituen baliabideak gainezka daudenez, ezin zaie arreta egokia eman, eta horren ondorioz, are gehiago larriagotzen da haien zaurgarritasuna.

Ez litzateke beharrezkoa izan behar gogoraztea, baina behar beste aldiz gogoraziko dugu: adingabeen interes gorenaren babesak funtsezko printzipio gidari izan behar du botere publikoen jardunean. Nazioarteko zenbait itunetan jasota dago printzipio hori, hala nola Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan. Honako hau

dio, hain zuzen ere, Konbentzioaren 3.1 artikulua: “Haurrei dagokienez, gizarte-ongizateko erakunde publiko nahiz pribatuek, auzitegiek, administrazio-agintariek edo legegintza-organoek hartzen dituzten neurri guztiek haurren interes gorenaren zaintzea izanen dute lehendabiziko ardura”. Baina diskriminazio ezaren printzipioa ere aldarrikatzen du; eskubide guztiak haur guztiei aplikatu behar zaizkie, salbuespenik gabe “haurren, gurasoen nahiz euren lege-ordezkarrien arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, ezintasun fisikoak, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide”. Gainera, estatuengan uzten du haurrak bereizkeria mota orotatik babesteko ardura.

Betebehar hori 39.4 artikuluan jasotzen da gure Konstituzioan, zeinak honako hau gogorazten baitu: “Umeek nazioarteko itunetan ezarritako babesa izanen dute, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian”. Gainera, printzipio hori indartu egin da ondorengo arauetan, hala nola Haurrak eta Nerabeak Osorik Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan. Eta Nafarroan, maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legeak, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoak, adingabe guztien interes gorenaren alde egiten du, adingabeen babes juridikoari buruzko Estatuko araudiarekin, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioarekin eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioarekin bat, desgaitasuna duten adingabeei dagokienez. Gainera, Nafarroan dauden adingabe migratzaileei dagokienez, bermatzen du eskubidea dutela haien arreta eta inklusio sozial, linguistiko eta kulturala ahalbidetuko dituzten baliabide eta zerbitzu publikoetarako, haien lege-egoera edozein dela ere.

Adierazitakoarekin bat etorritik, bakarrik dauden haurrek Espainiako haurren eskubide berberak dituzte. Beraz, nahitaezkoa da haien eskubideak babestea, haien ongizatea eta garapen integrala bermatuko dituzten mekanismo lotesle eta solidoak ezarriz.

Espainiak baditu behar besteko baliabideak muturreko zaurgarritasuneko egoeran iristen diren haur migratzaileei arreta egokia emateko. Politika

eraginkorrak eta koordinatuak ezarri behar dira estatu- eta komunitate-mailan, adingabe horiek merezi duten babes eta zaintza jasotzen dutela bermatzeko. Giltzarri izaten ahal da hainbat instituzio eta erakunde inplikaturako dituen laguntza-sare bat sortzea adingabeoi ingurune segurua eta haien garapenerako mesedegarria eskaintzeko, baina baita 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen babes juridikoarena, Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren aldaketa partziala egitekoa, betetzeko ere, honako hau xedatzen baitu 11.1 artikuluan: "Gizarte-desberdinkeria zuzentzera bideratutako konpentsazio-politikak sustatuko dira. Nolanahi ere, adingabearen eskubideen funtsezko edukia ezin izango da kaltetuta gelditu oinarritzko gizarte-baliabiderik ez izateagatik ...".

Ildo horretatik, funtsezkoa da tokiko, komunitateko, nazio eta Europako agintariek modu bateratuan eta solidaritatez lan egitea larrialdi humanitario horri erantzuteko. Lankidetzaren eta konpromisoaren bidez soilik bermatu ahal izanen dugu haur horien eskubideak erabat errespetatu eta babesteko direla. Zentzu horretan, gure komunitatea, Nafarroa, harrera-lurraldea da, eta erreferente izan behar du gizarte-eskubideen defentsan, batez ere lagunduko dien familiarik eta sarerik ez duten haur eta nerabeei dagokienez. Koiunturala denaz harago, Nafarroak konpromiso osoa izaten jarraitu behar du Giza Eskubideen errespetua ekintzaren erdigunean jartzen duten politikekin.

Adingabeen interes gorena babestea ez da lege-agindu bat soilik, berehalako erantzun eraginkorra eskatzen duen agindu morala baizik. Konponbide egokirik gabe igarotzen den egun bakoitzeko, arriskuan jartzen dira milaka haurren

etorkizuna eta ongizatea. Ezin dugu onartu horrek berdin jarraitzea. Joka dezagun arduraz eta gizatasunez orain.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du 4/2000 Legearen 35. artikulua aldatzearen alde dagoela, haur migratzaileen eskubideak bermatzen lagunduko duten mekanismo lotesle eta solidarioak ezartze aldera, haien jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, arraza eta erlijioa edozein dela ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan bakarrik dauden adingabeen harrerarako iaz adostutako akordioak betetzen, bai eta Kanarietan 2024ko uztailean egindako Haurren Konferentzia Sektorialaren konpromiso berriak betetzen ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Haur eta Gazteria Ministerioa premiatzen du jarrai dezan haur migratzaileen eskubideak bermatzeko neurriak bultzatzen.

4. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuko talde parlamentarioak premiatzen ditu egin dezaten Atzerritarren Legearen 35. artikulua, bakarrik dauden adingabeei buruzkoa, aldatzearen alde.

5. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Gazteria eta Haurtzaro Ministerioari igorriko diola erabaki hau.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Kataluniaren finantzaketa berezirako akordioa

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Kataluniaren finantzaketa berezirako akordioa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

ERCK eta PSOEek Kataluniarako hitzartutako finantzaketa berezirako akordioaren aurkako mozioa.

Zioen azalpena

Duela zenbait aste jakin genuen PSOEek eta ERCK akordio bat adostu zutela azken horiek Salvador Illa Kataluniako presidente izendatzearen aldeko botoa eman zezaten. Trukean, PSOEren konpromisoa lortu zuten Katalunia erkidegoen finantzaketarako araubide komunitik atera dadin eta erkidegoan ordaintzen diren zerga guztien bilketa kontrolatu dezan.

Alderdi sinatzaileek berek "ekonomia-itun solidario" izena jarri zioten gertakari horri; bada, askok eta hainbat arrazoigatik eztabaidatu dute adjektibo horri buruz, solidario izenondoari buruz alegia.

Behin akordioaren testua ezagututa, zuzenbide konstituzionaleko zenbait adituk ohartarazi

dute sinatutako akordioa konstituzioaren kontra-koa dela, eta adierazi dute, legezkoa izan dadin, Espainiako Konstituzioa bera aldatu beharko litzatekeela.

Aldi berean, zenbait iritzi kritiko sortu dira PSOE, Sumar, Podemos, PP eta Voxeko ordezkari politikoen artean, eta horiek salatzen dute akordioak espainiar guztien berdintasuna hausten duela, eta horietako batzuek "pribilegio"-tzat jo dute gure Foru Araubidea.

Egoera horretan, UPNtik errefusatu egin nahi ditugu gure foru errealitatearen eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren aurka gertatzen ari diren erasoak, bai eta gure ekarpenari buruz adierazten ari diren zalantzak ere. Izan ere, ekarpena beti egin izan dugu Espainiako Konstituzioaren eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren arabera, eta leialak izan gara parte sentitzen garen proiektu komun batekiko, eta gure kargak geure gain hartu ditugu gainerako espainiarrekiko solidaritatez.

Agerikoa da ERCren eta PSOEren arteko akordioa Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren oso bestelako baldintzetan planteatu dela, eta salerosketa arduragabe bati eta Sánchez eta Illa jaunek Espainiako eta Kataluniako gobernuetako, hurrenez hurren, buru izateko dituzten premia politikoei erantzuten diela.

Ez dago Konstituzioan aitortuta, ez dio gure herriaren historiari erantzuten, eta ez da planteatzen Espainiaren batasuna indartzeko, baizik eta, aitzitik, haren haustura bultzatzeko, Kataluniako independentismoa indartuz.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentua premia-tzen dugu honako erabaki hau har dezan:

Erabaki-proposamena:

Gure konpromisoa berresten dugu Nafarroako Foru Araubidearen defentsan, eta sendoki errefusatzen dugu PSOEek eta ERCK Katalunian sinatutako akordioa, ez duelako irmotasun konstituzionalik eta espainiar guztien on komunitik urrun dauden interes politiko alderdikoiei erantzuten dielako.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 22an

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

F saila:
GALDERAK

**11-24/POR-00253. Galdera, Eraberritze Demokratikorako Plana foru-
araudiari egokitzeari buruzkoa**

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galdera, Eraberritze Demokratikorako Plana foru-araudiari egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuako presidentek eraberritze demokratikorako planaren ildo nagusiak aurkeztu ditu Diputatuen Kongresuan. Nafarroako Foru Komunitateak araudi berekia dauka azaldu-tako neurri batzuei dagokienez.

Nafarroak araudi berekia duen neurri horiek direla-eta, Nafarroako Gobernuak aurreikusten al du eraberritze demokratikorako plan hori dela-eta aurkeztutako neurriren bat foru-araudira egokitzea?

Iruñean, 2024ko uztailaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00254. Galdera, N-121-A errepideko argigailuak kudeatzeko sistemari buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, N-121-A errepideko argigailuak kudeatzeko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Fiskaltzak erabaki du artxibatu eginen dituela N-121-A errepideko argien kudeaketa-sistemari buruzko ikerketa-eginbideak, iritzita ez dela delituerik egin; zer balorazio egiten du kontseilariak horri buruz?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-24/POR-00255. Galdera, landa-inguruneko belaunaldi-berritzaerako planari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, landa-inguruneko belaunaldi-berritzaerako planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den uztailaren hasieran, Nafarroak lehen sektoreko belaunaldi-erleboari buruzko goi-mailako foroa hartu zuen. Hainbat eragileren arteko topaketarako eta hausnarketarako gune bat izan zen; horren ondorioak autonomia-erkidegoek jorratuko dituzte, eta ondorio horiek belaunaldi-erleboiko plan batean jasoko dira.

Zertan da plan hori eta zer egutegi darabil gogoan departamentuak plana amaitzeko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak,

11-24/POR-00256. Galdera, Lorpen Femeninoaren Indizeari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Lorpen Femeninoaren Indizeari egindako galdera, María Olga Chueca Chueca andreak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin dugu Nafarroa dela emakumeek lorpen gehien lortzen dituzten Espainiako eskualdea. Foru-erkidegoak 71,1 puntu lortu ditu Emakumeen Lorpen Indizean. Adierazle hori Europako Batzordeak egin du, eta Europar Bata-suneko 235 eskualderen arteko genero-berdintasanaren egoera alderatzen du.

Zer neurri planteatzen ditu INAI/NABIk gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunean aurrera egiten jarraitzeko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00257. Galdera, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko adierazleen gainekoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko adierazleen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Hezkuntza Departamentuak Nafarroako hezkuntza-sistemaren adierazleei buruz ezagutzen diren azken datuak direla-eta?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: María Inmaculada Jurío Macaya

11-24/POR-00258. Galdera, ustekabeko eta hezkuntza-indargarrirako matrikulen indizeei buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, ustekabeko eta hezkuntza-indargarrirako matrikulen indizeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikasle-aniztasunarekiko arretari erantzute alde-ra eskola publikoko sindikatuarekin izandako negoziazio-prozesuan lortu dituen akordioak gogoan (horien bidez bete da, egoerarik behartsuenean dauden ikasleei baliabideak esleituta, Hezkuntza Ituna), zer balorazio egiten du departamentuak gerora sortutako matrikula- eta errefortzu-indizeei buruz?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: María Inmaculada Jurío Macaya

11-24/POR-00259. Galdera, Nafarroako autonomoen eta funtzionarioen kopuruei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroako autonomoen eta funtzionarioen kopuruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer gertatu da Nafarroan autonomoen kopurua ez aldatzeko eta, hala ere, funtzionarioen kopurua etengabe handitzeko?

Iruñean, 2024ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-23/POR-00258. Galdera, A-15eko obrei buruzkoa**GALDERA ERRETIRATZEA**

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Yolanda Ibáñez Pérez andreak erretiratu duela A-15eko obrei buruzko ahozko galdera, zeina 2023ko abenduaren 1eko

41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/POR-00090. Galdera, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa irekitzearen atzerapenari buruzkoa**GALDERA ERRETIRATZEA**

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Leticia San Martín Rodríguez andreak erretiratu duela sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala 24 orduz emateko zentroa irekitzearen atzerapenari buruzko ahozko galdera,

zeina 2024ko martxoaren 1eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/POR-00209. Galdera, ezgaitasuna baloratzeko ekipoei buruzkoa**GALDERA ERRETIRATZEA**

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Raquel Garbayo Berdonces andreak erretiratu duela ezgaitasuna baloratzeko ekipoei buruzko ahozko galdera, zeina

2024ko maiatzaren 31ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatiko ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, 2024. urterako ordainsariak eguneratzeari buruzkoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

a) 161,25 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

b) 190,50 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

2. Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak igo eginen direla, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileentzat Estatuko legedian 2024rako ezartzen den gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2024. urterako ordainsariak eguneratzeari buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko

Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, lehendakariaren urteko ordainsari gordina 80.900,82 eurokoa izan dadila.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentarien ordainsariak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina dutenak

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarreari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du, foru parlamentarien 2024. Urterako ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17., 19. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 66.520 eurokoa izanen dela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

2. Onestea lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 59.127,88 eurokoa izanen dela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

3. Onestea Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide izanik lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 49.909,30 eurokoa izanen dela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

4. Onestea lanaldi osoko araubideari atxikita ez dauden gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 44.345,98 eurokoa izanen dela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

5. Ezartzea foru parlamentariet jasoko dituzten ordainsariet gehikuntza izanen dutela, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2024rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarreari erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko urriaren 4ko 14:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko urriaren 4ko 14:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

11-24/DFL-00002. 2/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko uztailaren 24koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak ziurtagiria igorri du, honako legegintzako foru-dekretuarena: 2/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko uztailaren 24koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 183. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea legegintzako foru-dekretu honen berri izan duela: 2/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko uztailaren 24koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2/2024 Legegintzako Foru Dekretua, 2024ko uztailaren 24koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion zenbait neurri luzatzen dituen

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorarekin harmonizatzeke irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZa) ordainaraztean, Nafarroak Estatuko lurraldean une bakoitzean indarrean dauden oinarritzko printzipio, arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Horren ondorioz, Nafarroak bere tributu-araubidea aldatu behar du zerga horren arau substantibo eta formalei eragiten dien tributu-araubide erkidearen erreformaren bat dagoenean. Helburu horrekin, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 53.1 artikulua ezartzen du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskuordetuta, tributuei buruzko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak ematen ahalko dituela. Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretuaren izena emanen zaie.

Estatuan datozen hilabeteetan elikagaien inflazioak bilakaera positiboa izan dezan laguntzeko, eta ildo horretan hartutako neurriak pixkanaka ezabatzeko, 2024ko abenduaren 31ra arte luzatu daiteke elikagai jakin batzuei BEZaren zerga-tasa murriztuak aplikatzeko epea. Hain zuzen, hala ezartzen du ekainaren 27ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez luzatzen baitira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri, eta premiazko neurriak hartzen baitira zergen, energiaren eta gizartearen arloan.

Zehazki, BEZa % 5ean mantenduko da janari-pasten eta hazi-olioen kasuan eta % 0an premia biziko elikagaien kasuan, 2024ko irailaren 30era arte. Oliba-olioei dagokienez (dieta osasungarri baten oinarritzko eta funtsezko elikagaia), BEZa % 5etik % 0ra murriztuko da 2024ko irailaren 30era arte. Data horretatik aurrera, inflazioa nabarmen murriztuko dela aurreikusten da, eta, beraz, aipatu elikagaien zerga-tasak % 7,5era eta

% 2ra igoko dira, hurrenez hurren. Igoera horrek abenduaren 31ra arte iraunen du, eta une horretan prezioen murrizketak aukera emanen du salbuespenezko neurri iragankor hori kentzeko, familien erosteko ahalmenari eragin gabe.

Gainera, oliba-olioa premiazko elikagai gisa finkatzen denez, hari aplikatu beharreko zerga-tasa % 4ko tasa super murriztuan mantenduko da 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera. Horretarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu behar da, behar diren ondorioetarako eta mugarik gabe, eta horrek, horrenbestez, 19/1992 Foru Legea aldatzea dakar.

Bestalde, produktu horiei aplikatu dakiekeen baliokidetasun-errekarguaren tasak % 0,6an eta % 0an mantenduko dira, % 5eko eta % 0ko BEZaren aplikazioari dagokionez. Ondoren, % 1era eta % 0,26ra igoko dira, elikagai horiek % 7,5eko eta % 2ko zerga-tasetan tribututzen dutenean, hurrenez hurren.

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu hau eman behar da, BEZari dagokionez, Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berberak aplikatu daitezkeen Foru Komunitatean.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2024ko uztailaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Lehena. Elikagaien entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuetan, Europar Batasunaren barrukoetan, aldi baterako aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, bai eta baliokidetasun-errekarguaren ondorioetarako ere.

Bat. Ondorioak 2024ko uztailaren 1etik aurrera eta indarra 2024ko irailaren 30era bitarte izateko:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren % 5eko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

- a) Hazi-olioak.
- b) Janari-pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa % 0,62koa izanen da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua ere, soil-soilik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnak.

b) Ogia egiteko irinak.

c) Edozein animaliak emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Fruta, barazkiak, ortuariak, lekariak, tuberkuluak eta laboreak, Elikadura Kodearen eta hori garatzeko emaniko xedapenen arabera produktu naturalen izaera dutenak.

g) Oliba-olioak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa % 0koa izanen da.

Bi. Ondorioak 2024ko urriaren 1etik aurrera eta indarra 2024ko abenduaren 31ra bitarte izateko:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren % 7,5eko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

- a) Hazi-olioak.
- b) Janari-pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa % 1ekoa izanen da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren % 2ko zerga-tasa aplikatuko da produktu hauen Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskurapenetan:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua ere, soil-soilik ogi arrunta egiteko erabiltzen direnak.

b) Ogia egiteko irinak.

c) Edozein animaliak emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Fruta, barazkiak, ortuariak, lekariak, tuberkuluak eta laboreak, Elikadura Kodearen eta hori garatzeko emaniko xedapenen arabera produktu naturalen izaera dutenak.

g) Oliba-olioak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa % 0,26koa izanen da.

Hiru. Aurreko apartatuetan aipatutako zergatasaren murrizketen onura osoa kontsumitzaileak jasoko du eta, beraz, murrizketaren zenbatekoa ezin izanen da erabili, ez osorik, ez partez, enpresen mozkin-marjina handitzeko, produktuen ekoizpen, banaketa edo kontsumo katean prezioak igota, deusetan galarazi gabe ukitutako sektoreek, erantzukizun soziala dela eta, konpromiso gehigarriak beren gain hartzea eta publizitateak.

Neurri honen eraginkortasuna egiaztatuko da prezioen bilakaeraren jarraipena egiteko sistema batekin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egin beharreko jarduketaz gain betiere.

Bigarren artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Ondorioak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37.Bi.1.1 artikuluari g) letra gehitzen zaio:

"g) Oliba-olioak".

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan ezarritako ondorioak izanen ditu.

Iruñean, 2024ko uztailaren 24an

Nafarroako Gobernuko lehenengo lehendakariordea, Félix Taberna Monzón

Lehen lehendakariordea, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria ordezkatzuz (Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren 1/2024 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa), Félix Taberna Monzón

